

HOBKUNTZA PLANAK

PLANAK EGITEKO JARRAIBIDEAK

Abiapuntuko gaia: “Hobetzea hobetu nahi izatea da”

Hobekuntza plana diseinatzen hasi baino lehenago, ikastetxeak alde zureko gai bat planteatu behar du: benetan hobetu nahi du? Zinez uste du posible dela hobetzea eta erronka horri ekitea? Jarrera argirik gabe, lanean lidergorik izan gabe, ez dago hobekuntza plan posiblearik. Horregatik, ikastetxeak behar du:

- Konbentzimendua, hobekuntza posible dela sinesteko
- Kontrola, jarrera derrotoistekiko
- Planteamendu justifikatzailerik ez izatea

Zer da hobekuntza plan bat?

Hobekuntza plan bat aldaketarako neurri multzo bat da, erakunde batek bere errendimendua hobetzeko hartzen dituenak, eta gure kasuan, hezkuntza errendimendua hobetzeko. Hainbat motatakoa izan daitezke: antolakuntzakoak, curriculum mailakoak...

Zehazki, gure kasuan planaren neurriek helburu gisa izanen dute, batetik, gaitasunen araberako ikuspegia txertatzea eskola curriculumean, eta bestetik, ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntzaren garapena, ikastetxearen ekitate eta bikaintasun maila areagotzeko.

Hobekuntza neurriak sistematikoak izan behar dira, ez inprobisatuak edo ausazkoak. Arretaz planifikatu behar dira, praktikara eraman eta ondorioak egiaztatu. Irakaskuntza hobetzeko plan batek ikasleen ikasketa mailaren hobekuntzarako mesedegarri izan behar du.

Hobekuntza planak: oinarrizko gaitasunak ezartzeko metodologia

Dekretu bidez oinarrizko gaitasunak curriculumean txertatzea ez da aski automatikoki aldaketa esanguratsu bat ekartzeko. Irakasleak izan behar dira aldaketaren benetako protagonista. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak hobekuntza planak sartzeari ekin dio, curriculum gaitasunei dagokienez aberasteko asmoz. Helburua da, modu horretara:

- Ikastetxeen aniztasuna eta erritmoak errespetatzea.
- Gaitasunak dimentsio praktiko eta aplikatu batean kokatzea
- Ebaluazioa hobekuntza planei lotzea
- Etengabeko hobekuntzaren kultura sortzea

Hobekuntza planerako behar diren baldintzak

Eraginkorra izan dadin, hobekuntza plan batek aldez aurreko baldintzak eskatzen ditu:

- Zuzendaritza taldearen lidergoa
- Irakasleen eta gurasoen inplikazioa
- Curriculum gaitasunen garapenera begira jartzeak duen zentzua ulertzea

Irakaskuntzaren kalitatea: hobekuntza planen erreferentzia

Hobekuntza plana, batez ere, *gaitasunei dagokienez ikastetxearen ekitatea eta bikaintasuna hobetzeko konpromiso argi eta irmoa da.*

- **Ekitate** maila barne ebaluazioetan gainditu ez duten ikasleen kopuruak adierazten du, eta ebaluazio diagnostikoak 1. mailan edota 2. mailan izaten dira.
- **Bikaintasun** maila adierazten du barne ebaluazioetan “Oso ongi” edo “Bikain” ateratzen duten eta ebaluazio diagnostikoetan 3+ mailan dauden ikasleen kopuruak.

Funtsean, eta modu xumeagoan esanda, ikastetxe baten ekitate edo bikaintasun maila areagotzeak zera erdiestea esan nahi du: *ikasle bakarrak ere ez dezala bere ahalmenetatik behera lan egin.*

Balioak dira hobekuntza planaren muina

Hobekuntza planek ez dituzte soilik gaitasunen alderdirik kognitiboenak aintzat hartu behar. Balioak ere izan daitezke gaitasunen parte, eta beraz, planetan sartu beharko dira. “Barne-hartzearekin”, bizikidetzarekin, eskola giroarekin, aisialdi sortzailearekin, errespetuarekin,

hezkidetzarekin, eta abarrekin loturiko balioak ikastetxean egindako zeinahi hezkuntza jarduerari lotu behar zaizkio.

Baina ezin dira alde batera utzi balio tradizionalagoak, kasu, ahalegina, nekaezintasuna, erantzukizuna, errespetua, pertsona ororekiko tratu atsegin eta xaloe, eta abar. Balio horiek pertsonarekin bat joan dira bizitza guztian zehar. Horiek gabe, gaitasunak hustu egiten dira.

Ikastetxeen autonomia eta hobekuntza planak

Ikastetxeek autonomia izanen dute beraiei hobekuntza planak ezartzeko. Ikastetxe bakoitzaren errealitatea desberdina da. Ikasleen prestakuntza beharrek, familien laguntzak, ikastetxearen barneko historiak, hobekuntza planetan duten esperientziak eta abarrek, hasieratik beretik egoera desberdinak sortzen dituzte, eta beraz, eritmoak eta lehentasunak ezin dira berdinak izan.

Curriculumean gaitasunak sartzeak, bikaintasuna alde batera utzi gabe ekitate maila altua izanen duen kalitatezko hezkuntza lortu beharrak, eta gainera, gizartearen konplexutasun handiagoak eta kasu askotan eskolak eta gurasoek balio partekaturik ez izateak, geroz eta konplexuago egiten dute eskolaren eta irakasleen funtzioa eta erronka berriak ekartzen dituzte, ezezagunak izan direnak gizarte egonkorragoetan. Funtsezkoa da, inoiz baino funtsezkoago, etengabeko hobekuntza jarrerak hartzea, eta hezkuntza erakundea ezagutzaren gizarte berriaren konplexutasunera eta Europako barrutira egokitzea.

Hobekuntza: epe labur, ertain eta luzerako egitasmoa

Hobekuntza ez da erdiesten ikasturte batean egindako ekintza puntualekin; epe ertain eta luzerako plan bat behar da, jarraitutasuna eta koherentzia emateko zenbait ikasturteetan hartuko diren neurriak. Nahitaezkoa da etorkizuneko ikuspegia, ikastetxeko plan estrategikoan zehaztua, horren bidez urte urte erdietsitako hezkuntza etekinak areagotzeko.

Hortaz, urteko hobekuntza plana denbora testuinguru zabalago batean kokatu behar da. Hori bai, horrek ez du esan nahi gutxi definituriko planak egin behar direnik, asmo onez beteak baina exekuziorako epe zehatzik gabekoak eta helburu neurgarriak gabekoak.

Lehentasunak planetan neurriak sartzeko orduan

Hezkuntzako Lege Organikoak nahitaezko bi elementu ezartzen ditu hobekuntza planak dagokienez: batetik, curriculumetan oinarrituko gaitasunak sartzea, eta bestetik, ebaluazio diagnostikoa har dadila ikasleen, ikastetxearen eta hezkuntza sistemaren errealitatea hobeki ezagutzea ahalbidetuko duten elementu gisa, hortik aurrera hobekuntza planak ezarri ahal izateko. Bestetik, PISA ebaluazioek erakutsi dute gure hezkuntza sistemak hobetu egin behar dituela ekitate (nahiz eta alderdi honi dagokienez gure egoera ez den txarra, ebaluazioan parte

hartzen duten beste herri batzuekin erkatuz), eta bikaintasun mailak (hau hobekuntza arlo garbia da gure hezkuntza sisteman, uniformizaziorako joera areagotzen duelako).

Aurrekoarekin bat, eta autonomia printzipioa errespetatuz, hobekuntza planen ondoko edukia planteatzen da:

Eskeman ikus daitekeen moduan, urtero sartu beharko dira neurriak ebaluazio diagnostikoaren helburu diren gaitasunak hobetzeko:

- Gaitasun linguistikoa (gaztelania, ingelesa, eta hala badagokio, euskara)
- Gaitasun Matematiko eta Zientifikoa (Bigarren Hezkuntzan)

Gainera, arlo eta irakasgai guztietan landuko da ikasitakoaren dimentsio aplikatua (kontzeptuak, trebetasunak, prozedurak, jarrerak, balioak, arauak...), eta hori argi islatuko da ondokoetan:

- Programazioak
- Irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak
- Ebaluazioa (irizpideak, azterketak, kontrolak...)

Zenbait urteetarako planarekin bat eta ikastetxearen irizpidearen arabera, progresiboki arlo eta irakasgai jakin batekin lotu ez eta oinarritzko gaitasun guztietan dauden alderdiak sartuko dira, kasu:

- Ulermenezko irakurketarekin loturiko arlo eta irakasgai guztietako alderdiak, eta ordena, zorrozatasuna eta zuzentasuna zainduz idatziz adierazteko gaitasuna, arlo eta irakasgai guztietan.
- Etapan zehar "ikasiz ikasi" ideiarekin loturiko alderdiak lantzeko (eskemak, kontzeptu mapak, laburpenak, ahozko azalpenetarako gidoiak, lanaren antolamendua, etab).
- Gaitasun digitalarekin loturiko alderdiak (informazioa bilatzea, tresna informatikoak baliatzea, etab.).
- Gaitasun sozial eta herritarrarekin (bizikidetzatza, gizarte balio eta trebetasunak...) loturiko alderdiak.
- Autonomiarekin eta ekimen pertsonalarekin loturiko alderdiak (erantzukizuna, pertseberantzia, autoestimua, autokritika, norbere buruaren gaineko kontrola, etab.).

Errealitatea ezagutzea: planaren abiapuntua

Ikastetxeak nahitaez ezagutu behar du argi eta garbi zein den ikasleen errendimendu maila (balioak barne). Horretarako, nahitaezkoa da urtero aztertzea zeintzuk diren emaitza akademikoak eta zeintzuk ebaluazio diagnostikoen emaitzak. Halaber, lagungarria izan daiteke zeregin horretan ziklo eta etapa bukaeretan barne proba diagnostikoak egitea.

Hobekuntza plan bateko elementuak

Hobekuntza plan batek helburu batzuk finkatu behar ditu, jarduerak diseinatu, jarduera bakoitzerako arduradunak izendatu, baliabideak xedatu neurria aurrera eraman ahal izateko, laneko prozedura edo metodo bat aurreikusi, egutegia ezarri, eta, garrantzitsua, helburu bakoitza bete ote den egiaztatzeke sistema aurreikusi, hots, adierazleak ezarri.

- *Helburuak*: denbora jakin batean erdietsi nahi den huraxe. Infinitiboan dagoen aditz baten bidez adierazten da. ISO 9001:2000k eskatzen du, gainera, ezarritako helburuak neurgarriak izan daitezela.
- *Jarduerak*: helburua erdiesteko egin behar diren ekintza zehatzak. Helburu bakoitza jarduera batean edo gehiagotan zehaztu daiteke. Adibidez, helburua bada arlo guztietan garatzea “ikasten ikasi” gaitasuna, moldatu egin beharko da jardeuraren bat xede horretarako, adibidez: Departamentuko edo Zikloko bi bilkuretan aztertzea dokumentu bat eta organismo horietan gauzatzeko ekintza zehatzak proposatzea.
- *Arduraduna*: jarduerak diseinatzeko, horien jarraipena egiteko, epeak betetzen direla zaintzeko eta abarreko lanak esleitzen zaizkion pertsona.
- *Baliabideak*: jarduera bat aurrera eramateko jartzen diren baliabideak. Dokumentazioa, araudia, bibliografia, lan eskemak... etab. izan daitezke.
- *Lan prozedura*: aurreikusitako jarduera nola egingen den. Zehaztu beharko da, adibidez, zein unetan egingen den jarduera, zein izanen den jarraituko den metodologia (banakako lana, bateratzea, posta elektronikoaren erabilera...), etab.
- *Egutegia*: zehaztu behar da zenbat denbora erabiliko den jarduera bakoitzean edo fase bakoitzean. Jardueren jarraipenerako uneak ere idatziko dira.
- *Adierazleak*: aurreikusitako helburuetara modu objektiboan hurbiltzen garen egiaztatzeke eta jarduerak aurreikusitakoaren arabera izan diren jakiteko baliabideak dira. Hainbat motatako adierazleak daude. Batzuk gauza zehatzen gaineak dira, kasu, proposamen zehatzak dituen dokumentu bat epean entregatzea. Beste batzuk adierazle baten bidez adierazten dira, hala nola, ikasitakoa aplikatzeko galderaren bat duten ebaluazio ariketen ehunekoa. Adibide hauek guztiek komunean dutena da adierazleen adierazteko moduak bide eman behar duela jakiteko zein den horien betetze maila. Aitzitik, ondoko adibidea ez da adierazle ona: “azterketetan eta kontrolatan sartzea ikasitakoa aplikatzeko galderak”. Ez da adierazle egokia, izan ere, ez du uzten egiaztatzen neurri hori praktikara eraman ote den planifikaturikoaren arabera; enuntziatu orokorra da eta zehaztapena falta zaio.

Ondoko laukietan ikus daitezke hobekuntza planeko elementu horiek guztiak:

Helburuak	Jarduerak	Arduraduna	Baliabideak	Lan prozedura	Egutegia	Adierazleak

Plan bakar bat edo plan partzialen multzo bat?

Oro har, ikastetxeko hobekuntza planak ziklo edo departamentu guztiak eta irakasle taldeak barne hartu behar ditu. Batzuetan, hala ere, horietako batzuk munta handikoak izaten direnez, komeni izaten da plana modu bereizian planteatzea; hori da, hain zuzen ere, bizikidetza, berdintasun edo aniztasunari erantzuteko planen eta abarren kasua. Ez dugu ahaztu behar, nolanahi ere, formatuetatik eta aurkezpen bateratu edo bereizietatik haratago, denek ere printzipio berei eta etengabeko hobekuntzaren filosofia berari erantzuten diotela.

Nolanahi ere, ikastetxe batean planifikatzen den oro ez da hobekuntza plana. Adibidez, programazio eta jarduera osagarriak, beste gai batzuen artean, planifikatu egiten dira, baina horregatik ez dira berez hobekuntza planak, nahiz eta hobetu, hobetu daitezkeen horietako plan bati esker.

Hobekuntza planak ikastetxea funtzionarazten duten zera horretan oinarritzen dira: antolamendua, planifikazioa eta irakaskuntzaren eta tutoretza planaren garapena...

Helburuak ezartzea

Batzuetan helburuak horren zehatzak izanik, praktikan "xede" hizkuntzako jarduera zehatz baten translazioa dira. Beste batzuetan, aitzitik, modu orokorrean eta abstrakzioz enuntziatzen dira eta kontrolatuak izateko gaitasuna galtzen dute.

Helburuak izan behar du:

- Asmo handikoa
- Iradokitzailea
- Esanguratsua
- Berariazkoa
- Lorgarria
- Neurgarria
- Epe finko batekin

Ikus ditzagun adibide batzuk ondoko taulan:

Helburua	Helburuaren balioespena
Ikasleen kalifikazioak hobetzea	Orokorregia da
Etaparen guztiko irakasleek inplikatzeko gaitasunaren ikuspegian	Orokorregia da
DBHko irakasgai guztietako kontrolatan eta hirugarren hiru hilabete azterketetan, ikasitakoaren aplikazioa ebaluatzearen galderaren bat sartuko da.	Helburu egokia izan daiteke, asmo handikoa delako eta era berean errealista, zehatza eta adierazle onen bidez neurtzeko modukoa

Jarduera esanguratsuak diseinatzea

Hobekuntza plan baten elementu gakoa da: zer egin helburuak erdiesteko. Batetik, mentalitate aktibistak, eta bestetik, zeinahi jarduera zorrotzek eskatzen duen hausnarketan denborarik eman ezin izanak ekarri dutena da pentsatzea garrantzitsuena gauzak egitea bera dela. Baina jardun aurretik ziurtatu beharko genuke ikastetxearen kalitatearen hobekuntza ekarriko ote duten.

Adierazleak idaztea

Adierazlerik gabeko hobekuntza plan bat noraezean dagoen plan bat da, ongi definituriko adierazleek baino ez baitute ahalbidetuko egiaztatu ahal izatea helburuak erdietsi ote diren.

Eraginkorrak izateko, adierazleek izan behar dute:

- Zehatzak eta adiera bakarrekoak
- Esanguratsuak
- Erraz ulertzeko modukoak
- Egonkorak denboran zehar
- Neurgarriak
- Funtsezkoan eragiten dutenak
- Informazioa jasotzeko errazak izanzen direnak.

Ikus ditzagun adibide batzuk ondoko taulan:

Adierazlea	Adierazlearen balioespena
Irakurmen probetan hobetzea	Adierazle orokorregia da, ez baitu uzten egiaztatzen helburua erdietsi den ala ez
Ikasitakoa bizitza errealaren testuinguruan aplikatzeko ariketaren bat duten kontrol eta azterketen ehunekoa	Adierazle zehatza da, errealista eta helburua erdiesten den ala ez egiaztatzen utziko diguna.

I. ERANSKINA

HOBKUNTZA PLANETAN SAR DAITEZKEEN HELBURUEN MAPA

Ondoren hobekuntza planen helburu posibleetarako mapa bat aurkezten dugu. Aurkezpenari begira, lau bloke handitan antolatu dugu. Lehenbizikoak irakasleen eta familien inplikazioaren gaineko helburuak jasotzen ditu, eta zikloko koordinatzailearen, departamentuko buruaren eta abarren lidergoari dagozkionak. Bigarren blokean, oinarritzko gaitasunekin eta curriculumeko balioekin zerikusia duten helburuak jasotzen dira. Hirugarren blokea oinarritzko gaitasunen ildoan, programazioak, irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak eta ebaluazioa hobetzeko helburuei dagokie. Laugarren blokeak barne hartzen ditu ekitatearen eta kalitatearen gaineko helburuak. Azkenik, bosgarrena pertsonen dagokie, izan ere, irakasleen eta familien inplikaziorik gabe zaila izanen baita praktikan hezkuntzaren hobekuntza erreala egitea.

I. blokea: irakasleen eta familien inplikazioari dagozkion helburuak

	Ikastetxearendako esanguratsuak	Hobekuntza planean zein urtetan sartu nahi den
a) Departamentuko buruaren, zikloko koordinatzailearen eta abarren lidergoari dagozkion helburuak.	a.1)..... a.2) a.3).....	
b) Irakasleen inplikazioari dagozkion helburuak	b.1)..... b.2) b.3).....	
c) Eskola Kontseiluaren inplikazioari dagozkion helburuak	c.1)..... c.2) c.3).....	
d) Familien inplikazioari dagozkion helburuak	d.1)..... d.2) d.3).....	

II. blokea: oinarritzko gaitasunak eta balioak hobetzearekin loturiko helburuak

	Ikastetxearendako esanguratsuak	Hobekuntza planean zein urtetan sartu nahi den
a) Arlo/irakasgai guztietan gaitasun linguistikoaren hobekuntzari loturiko helburuak (gaztelania, euskara)	a.1)..... a.2) a.3).....	
b) Gaitasun linguistikoaren hobekuntzari loturiko helburuak (ingeleza)	b.1)..... b.2) b.3).....	
c) Gaitasun matematikoaren hobekuntzari loturiko helburuak	c.1)..... c.2) c.3).....	
d) Gaitasun zientifikoaren hobekuntzari loturiko helburuak	d.1)..... d.2) d.3).....	
e) Gainontzeko oinarritzko gaitasunen hobekuntzari dagozkion helburuak	e.1)..... e.2) e.3).....	

III: blokea: gaitasunak buruan, egindako programazioen, jarduera didaktikoen eta ebaluazioen hobekuntzari loturiko helburuak

	Ikastetxearendako esanguratsuak	Hobekuntza planean zein urtetan sartu nahi den
a) Gaitasunen perspektiba sartzeko programazioa hobetzeari dagozkion helburuak (ezagutzen aplikazioa...)	a.1)..... a.2) a.3).....	
b) Gaitasunak buruak egindako irakaskuntza/iasakuntza jarduerari dagozkien helburuak	b.1)..... b.2) b.3).....	
c) Gaitasunak buruan ebaluazioa hobetzeari dagozkion helburuak	c.1) c.2) c.3).....	

IV. blokea: ikastetxeko ekitatea eta bikaintasuna hobetzeari dagozkion helburuak

	Ikastetxearendako esanguratsuak	Hobekuntza planean zein urtetan sartu nahi den
a) Arrisku egoeran dauden ikasleen errendimendua hobetzearekin loturiko helburuak	a.1)..... a.2) a.3).....	
b) Ikasle guzti-guztien errendimendua hobekuntzarekin loturiko helburuak (horrela egiten da bikaintasunerantzko bidea)	b.1)..... b.2) b.3).....	

V. blokea: pertsonen inplikazioarekin loturiko helburuak: irakasleak eta familiak

	Ikastetxearendako esanguratsuak	Hobekuntza planean zein urtetan sartu nahi den
a) Departamentuko buruen / zikloko koordinatzaileen inplikazioarekin loturiko helburuak	a.1)..... a.2) a.3).....	
b) Ikastetxeko irakasle guztien inplikazioarekin loturiko helburuak	b.1)..... b.2) b.3).....	
c) Inplikazio txikiena duten famiilen eta gainontzekoen inplikazioarekin loturiko helburuak	c.1)..... c.2) c.3).....	

II. ERANSKINA

HOBKUNTZA PLANAK ETA HOBKUNTZA PLANEN EZARPENA ETA JARRAIPENA BALIOESTEKO ADIERAZLE SISTEMA

Hobekuntza plana gainbegiratzea

I.- Aztertu al dira ebaluazio diagnostikoaren emaitzak, emaitza akademikoak, beste barne ebaluazio batzuetako datuak (zikloa, etab.) hobekuntza planak zehazteko?
--

1. adierazlea.

Ikastetxearen inplikazioa ebaluazio diagnostikoko emaitzen eta emaitza akademikoen azterketan

- I. maila: gutxieneko inplikazio maila. Irakasleak bere kabuz baino ez ditu aztertzen emaitzak.
- II. maila: Inplikazio maila baxua. Bi irakaslek edo gehiagok aztertuko dituzte emaitzak modu asistematikoa eta anekdotikoa.
- III. maila: bi irakaslek edo gehiagok emaitzak aztertu dituzte planteamendu sistematikoa batekin, nahiz eta ikastetxeko antolamendu egituretatik kanpo izan (zikloak, departamentu didaktikoak, Hezkuntza Laguntzarako Unitateak, Orientazio departamentua, etab.)
- IV. maila: zenbait irakaslek emaitzak aztertuko dituzte ikastetxeko antolamendu egituraren barruan (zikloak, departamentu didaktikoak, Hezkuntzarako laguntza unitatea, orientazio departamentua, etab.). Gerta daiteke zeregin honetarako lantaldeak sortzea. Gainera, emaitza akademikoak ere erkatu daitezke.
- V. maila: aurrekoaz gain, Koordinazio pedagogikorako batzordea, ikasketa burutza eta zuzendaritza ere inplikatu dira.

2. adierazlea

Ikasleen banaketaren azterketa, maila: proba bakoitzeko 1. mailan dauden ikasleen kopurua

- I. maila: ez da egin inolako azterketarik irizpide honi jarraikiz.
- II. maila: azterketa egin da irizpide hauei jarraikiz, baina modu derrotistan (ez dago deus egiterik, konstatatu, besterik ez).
- III. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, eta sumatzen da esku-hartzeko asmoa. Badira esku-hartze hori nola egin adierazten duten proposamen zehatzak.
- IV. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, eta sumatzen da esku-hartzeko asmoa dagoela. Badira esku-hartzea nola egin adierazten duten proposamen zehatzak.
- V. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, sumatzen da esku-hartzeko asmoa dagoela. Badira esku-hartzea nola egin adierazten duten proposamen zehatzak. Izaera orokorreko neurriez gain (laguntzak antolatzea, oinarriko gaitasunen bat intentsiboki lantzea..., modu koordinatuan lan egiteko konpromisoa, etab), plan indibidualizatu bat dago gutxienez ere 1. mailan dauden ikasle guztiekin.

3. adierazlea

Ikasleen banaketaren azterketa, maila: maila bakoitzean dagoen ikasle kopurua

- I. maila: ez da azterketa mota hau irizpide honi jarraikiz egin.
- II. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, baina modu konformista batean (ikaslearen arabera, ez ikastetxearen planteamenduaren arabera).
- III. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, eta sumatzen da esku-hartzeko asmoa. Ez dago esku-hartze hori nola egin adierazten duten proposamen zehatzik.
- IV. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, eta sumatzen da esku-hartzeko asmoa dagoela. Badira esku-hartzea nola egin adierazten duten proposamen zehatzak.
- V. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, eta sumatzen da esku-hartzeko asmoa dagoela. Badira esku-hartzea nola egin adierazten duten proposamen zehatzak. Gainera, proposamenak berritzaileak dira: antolamendu forma berriak, curriculum egituratzea, ikasle guztiendako plan indibidualizatuak, gaitasunen arabera, etab.
- VI. maila: gainera, gaitasun batean edo batzuetan adierazle neurgarriekin konpromiso eta helburuak zehaztuko dira.

	1. maila	2. maila	3. maila	3+ maila
Gaurko egoera	Ikasleen %.....	Ikasleen %.....	Ikasleen %.....	Ikasleen %.....
Espero den egoera (kurtso bat, bi...)	Ikasleen %.....	Ikasleen %.....	Ikasleen %.....	Ikasleen %.....

4. adierazlea

Ikasleendako zailtasun mailaren arabeko itemen azterketa, probetako bakoitzean

Adierazlearen mailak.

- I. maila: ez da egin mota honetako azterketarik, irizpide honi jarraikiz, inongo probetan.
- II. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz baina modu mekaniko eta deskribatzailean, curriculum perspektibarik gabe.
- III. maila: azterketa egin da, irizpide honi jarraikiz, eta indarguneak eta ahulguneak zehaztu dira. Bi puntuak ere lotura dute irakaskuntza ikuspegiak, metodologia, programazioa, ebaluazioa... bezalako aldagaiekin. Sumatzen da badela esku-hartzeko asmoa baina ez da ideia zehatzik ikusten, ezta ere nola egin behar den.
- IV. maila: azterketa egin da irizpide honi jarraikiz, ikusten da esku-hartzeko asmoa eta proposamen zehatzak daude, nola egin adierazten dutenak

5. adierazlea

Ebaluazio diagnostikoko emaitzen erabilera

Adierazlearen mailak

- I. maila: ez du inolaz ere iturri hau erabiltzen.
- II. maila: formalki erabiltzen da (aipatzen da, hortaz hitz egiten da...) baina errealitatean ez du inolako eraginik hobekuntza lerroetan.
- III. maila: iturri hau partzialki hartzen da kontuan. Ez da erabiltzen bere osotasun guztian ebaluazio diagnostikoak emandako informazioa
- IV. maila: iturri horretako informazioa modu egokian erabiltzen du.
- V. maila: ebaluazio diagnostikoaren iturria erabiltzeaz gain, barne ebaluazioetako datuak erabiltzen ditu (ikastetxe bereko adierazleak): gaundituen %, gora igotakoen %, titulatuak %, etab. Lehen Hezkuntzaren kasuan, ziklo bukaerako barne ebaluazioko informazioa erabiltzen da.

II.- Egin da ikastetxeko ikasleen prestakuntza beharrianen diagnostikorik? Beharrian horiek zenbait urtetako plan estrategikoen edo hezkuntza proiektuan txertatuta daude?

6. adierazlea

Ikastetxearen benetako beharizanen diagnostikoa

Adierazlearen mailak

- I. maila: ez du inolaz ere iturri hori baliatzen. Ez dago diagnostikorik, ez formalki ez informalki.
- II. maila: formalki erabiltzen da (aipatzen da, hortaz hitz egiten da...) baina errealitatean ez du inolako eraginik hobekuntza lerroetan.
- III. maila: iturri hau partzialki hartzen da kontuan. Ez dago diagnostiko sistematiko eta zorrotz bat benetako beharizanen gainean. Zenbait beharizan jasotzen dituen informazio kohesiorik gabekoa da (adibidez, diziplina arazoak, ikasleen motibazio ahula, etab.).
- IV. maila: behar bezala erabiltzen da iturri honetako informazioa. Benetako diagnostiko bat dago. Ikastetxeak ezagutzen ditu beharizan horiek eta dokumenturen batean ezarri ditu.
- V. maila: aurrekoaz gain, ikastetxeak diagnostikorako tresna indartsuak erabili ditu, kasu, "Ishikawaren arrain hezurra", AMIA matriza, etab.

7. adierazlea

Proiektu estrategiko batean / ikastetxeko hezkuntza proiektuan txertatzea

Adierazlearen mailak

- I. maila: ez du inola zere erabiltzen iturri hau. Ez da aipatzen hezkuntza proiektua.
- II. maila: formalki erabiltzen da (aipatzen da, hortaz hitz egiten da...) baina errealitatean ez du inolako eraginik hobekuntza lerroetan.
- III. maila: iturri hau partzialki hartzen da kontuan. Hezkuntza proiektuko alderdi batzuk kontuan hartzen dira, baina ez dago ikuspegi estrategikorik.
- IV. maila: iturri honetako informazioa behar bezala erabiltzen da. Bada plan estrategiko bat (formalki egitura eta eskema zeinahi duelarik ere), balio duena hobekuntza planak finkatzeko, baina ez dago eguneratua eta ez da oso operatiboa.
- V. maila: aurrekoaz gain, ikastetxeak badu plan estrategiko bat hezkuntza egitasmoaren barruan, eguneratua eta operatiboa.

III.- Plana xumea eta errealista da? baditu jarduera esanguratsuak eta helburuen erdieste maila egiaztatzeko adierazleak?
--

8. adierazlea

Hobekuntza planaren jarraipena

- I. maila: ez dago aurreko planik, eta beraz, ez dago jarraipenik
- II. maila: bada lehenagoko plana baina gaur egunekoarekin dagoen lotura eskasa da. Biek ere arau eskaera bati erantzuten diote, ikastetxeak bere gain harturiko plan bati baino.
- III. maila: gaur eguneko planak eta aurrekoak lotura dute baina planteamendu zirkularra baino progresiboa dute (praktikan, plan bera da, urtez urte errepikatua).
- IV. maila: gaur eguneko plana aurrekoarekin lotzen da eta ikuspegi progresibo eta gehigarria du.
- V. maila: aurrekoaz gain, bi planek hainbat urterako plan estrategiko bati erantzuten diote.

9. adierazlea

Errealismoa, erraztasuna, operatibotasuna eta emaitzak konstatatzeko gaitasuna

- I. maila: ez dago hobekuntza planik
- II. maila: bada hobekuntza plana baina ez da teknikoki gehiegi garatu. Asmo onen multzo bat da, gehiegi garatu eta zehaztu ez dena.
- III. maila: ildoak definiturik daude, jarduerak ere bai, operatiboak eta errealistak dira baina ez dago ongi artikulatua horiek betetzeko sistema (ez dago adierazlerik, etab.).
- IV. maila: ildoak definiturik daude, jarduerak ere bai, operatiboak eta errealistak dira baina ez dago ongi artikulatua horien betetze maila egiaztatzeko sistema (adierazlerik ez, etab.)
- V. maila: aurrekoaz gain, emaitzen hobekuntzara bideraturiko ikuspegia du

IV.- Planak arriskupeko ikasleendako neurriak kontuan hartzen ditu?
--

10. adierazlea

Izaera orokorreko hobekuntza neurrien konbinazioa, berariazko beste neurri batzuekin, arrisku egoeran dauden subjektuendako

- I. maila: ez dago hobekuntza planik

- II. maila: bada hobekuntza plan bat, neurri orokorrak hartzen dituen, baina ez dio erreferentzia egiten arrisku egoeran dauden subjektuei,
- III. maila: bada hobekuntza plana neurri orokorrekin, eta erreferentzia egiten zaie, halaber, arrisku egoeran dauden subjektuei.
- IV. maila: aurrekoaz gain badira denendako berariazko hobekuntza planak, arrisku egoeran dauden ikasle guztiendako.

V.- Bada planean neurriren bat irakasleen jardura koordinatzeko, ikasleek gaitasunei dagokienez duten prestakuntza hobetze aldera?

11. adierazlea

Ziklo, ikasturte, departamentu, etapa, etapa arteko... mailako koordinazioa.

- I. maila: batez ere araudian dagoenari jarraitzen zaio, ez dago deus berezirik edo ez-ohikorik honi dagokionez.
- II. maila: badira koordinazio neurriak baina ez da zehazten zein zentzutan. Hala egiten bada, alderdiak hagitik generikoak dira.
- III. maila: badira berariazko koordinazio neurri zehatzak, baina ziklo batera, departamentu batera, kurtso batera edo batzuetara, etab. mugatuak. Hortaz, koordinazio partzialak dira.
- IV. maila: badira berariazko koordinazio neurri zehatzak, ziklo, departamentu, kurtso... bati baino gehiagori dagozkionak. Hortaz, ikastetxearendako partzialak baina esanguratsuak diren koordinazioez ari da.
- V. maila: badira berariazko koordinazio neurri zehatzak, praktikan ikastetxe guztiari dagozkionak.

VI. – Planean aipatzen diren neurrietakoren bat ikasitakoa ikasleen eguneroko bizitzan aplikatzeari dagokio?

12. adierazlea

Ezagutzen aplikazioa bilatzea programazioan, irakaskuntzan eta ebaluazioan

- I. maila: ez da ikuspegi hau sartu
- II. maila: ikuspegi hau sartzen da baina irakasle bakoitzaren arabera da. Esan daiteke jardura puntuala eta borondatezkoa dela irakasleendako.

- III. maila: ziklo, departamentu... mailan bada planteamendu bat teorikoa baino errealagoa den ikuspegi hori sartzeko.
- IV. maila: bada ziklo, departamentu... mailako planteamendu bat ikuspegi hau txertatzeko; ikuspegi praktikoa eta errealak du. Ikasgelara eramaten da.
- V. maila: aurrekoa modu orokortuan aplikatzen da ikastetxe guztian.

13. adierazlea

Arlo guztietan komunak diren zenbait gaitasun zeharka sartzea

- I. maila: ez da ikuspegi hau sartu.
- II. maila: ikuspegi hau sartzen da, baina irakasle bakoitzaren araberakoa da. Esan daiteke jardura puntual eta borondatezkoa dela irakasleendako.
- III. maila: ziklo, departamentu... mailan bada planteamendu bat teorikoa baino errealagoa den ikuspegi hori sartzeko
- IV. maila: bada ziklo, departamentu... mailako planteamendu bat dago, ikuspegi hau sartzeko; ikuspegi praktikoa eta errealak du. Ikasgelan eramaten da.
- V. maila: aurrekoa modu orokortuan aplikatzen da ikastetxe guztian.

VII.- Planak ikasleen jarraipen pertsonalizatua aintzat hartzen du?
--

14. adierazlea

Ikasleen jarraipen pertsonalizatua, tutoretza planaren bidez

- I. maila: tutoretza planaren ohiko neurriak sartu dira; ez dago hobekuntzarako berariazko jarduerarik.
- II. maila: tutoretza planeko ohiko neurriez gain zenbait neurri proposatu dira, jarraipen pertsonalizatua eta gurasoekiko komunikazioa sustatze aldera. Neurri hauek izaera teorikoagoa dute, praktikoa eta errealak baino.
- III. maila: proposaturiko neurri berriak praktikoa dira eta praktikara modu puntual edo sektorialean eramaten dira (tutore zenbaiten kasua...)
- IV. maila: aurrekoaz gain izaera orokorrekin aplikatzen da.

Hobekuntza planaren ezarpena gainbegiratzea

VIII. Badira ebidentziak esan ahal izateko hobekuntza plana aurreikusitakoaren arabera garatzen ari dela?

15. adierazlea

Aurreikusitako egutegiaren arabera ari da garatzen?

- I. maila: ez dago inolako ebidentziarik.
- II. maila: ebidentzia bakarra arduradunen ahozko informazioa da; ez da posible bestelako ebidentziarik jasotzea.
- III. III: maila: arduradunen ahozko ebidentziak partzialki egiazta daitezke ebidentzia dokumentalekin edo bestelakoekin.
- IV. maila: badira ebidentzia dokumentalak eta bestelakoak ahalbidetuko dutenak balioetsi ahal izatea planeko neurrien ezarpen maila.

16. adierazlea

Aurreikusitako neurri eta jarduera bakoitzaren garapena jarraitu daiteke (trazabilitateaz ari gara), egiaztatu ahal izateko benetan zabaldu ote den edo uneren batean eten den?

- I. maila: ez dago batere ebidentziarik.
- II. maila: ebidentzia bakarra arduradunen ahozko informazioa da, ez da posible bestelako ebidentziak jasotzea
- III. maila: arduradunen ahozko ebidentziak partzialki egiazta daitezke ebidentzia dokumentalekin edo bestelakoekin
- IV. maila: badira ebidentzia dokumentalak eta bestelakoak, ahalbidetzen dutenak balioetsi ahal izatea jarduera bakoitzaren garapen maila.

IX.- Erdietsi dira planaren helburuak?

17. adierazlea

Erdietsi dira hobekuntza planean aurreikusitako helburuak?

- I. maila: datuek adierazten duten ez dela inongo helbururik erdietsi.
- II. maila: datuek adierazten dute helburu bat edo bi erdietsi direla.
- III. maila: datuek adierazten dute ia helburu guztiak erdietsi direla.
- IV. maila: datuek adierazten dute helburu guztiak erdietsi direla.

